

## El Grupo Vasco en el Senado presenta doce enmiendas a los Presupuestos Generales del Estado

Tras el veto presentado el pasado viernes a los Presupuestos Generales del Estado para 2016, debido a la discriminación que presentan para con Euskadi y a la rémora que supondrá al Ejecutivo que se formará tras las próximas elecciones gestionar unas cuentas aprobadas por otro Gobierno, el Grupo Parlamentario Vasco en el Senado ha presentado doce enmiendas al texto.

En primer lugar, EAJ-PNV considera insuficientes los 1,5 millones de euros presupuestados por el Gobierno central para el proyecto de la capitalidad cultural europea de Donostia 2016, y reclama aumentar la dotación prevista en 3 millones de euros para alcanzar una financiación total de 4,5 millones. En opinión de la formación jeltzale, la partida prevista actualmente es significativamente inferior a lo aportado por otros Gobiernos centrales a otras capitales culturales de Europa y no está en consonancia con las aportaciones del resto de las instituciones de la Fundación Donostia/San Sebastián 2016.

Referido a la Y Vasca, para el Grupo Vasco también es insuficiente la dotación prevista para cumplir con el compromiso público adoptado por la Ministra de Fomento de finalizar esta obra en 2019. Por ello, propone incrementar las partidas asignadas en 140 millones de euros para alcanzar una cuantía total de 431 millones de euros. EAJ-PNV exige que ese incremento se destine al acceso a las estaciones y al Nudo de Bergara.

Por otro lado, el Grupo Vasco reclama que la oferta de plazas para el acceso a funcionario de la Ertzaintza sea la necesaria para alcanzar los 8.000 efectivos acordados en la Junta de Seguridad, habida cuenta de que más de 3.000 agentes causarán baja en los próximos diez años debido a que las primeras promociones irán alcanzando su edad de jubilación. Asimismo, se ha presentado una enmienda dirigida a flexibilizar los procesos de contratación de empleo público y una segunda para conceder un tratamiento igual a las escalas funcionariales. También se han presentado tres enmiendas que exigen respetar la competencia en políticas activas de empleo, transferida a la CAV en el año 2010, otra relativa a la Ley General de Subvenciones así como una salvaguarda para respetar el régimen foral y la ley del Concierto Económico.

Asimismo, se solicita al Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente que incorpore a las cuentas la construcción de la Depuradora de Aguas Residuales de Basaurbe, en Llodio, así como el encauzamiento del río Kadagua en el tramo comprendido entre el Ayuntamiento de Güeñes y la Papelera de Aranguren. El primero de los proyectos tendría un presupuesto de 18 millones de euros y el segundo, de 10 millones.

Finalmente, otra enmienda tiene por objeto recuperar la aplicación del tipo de IVA reducido para varios casos: para los referidos a los servicios de peluquería, sector intensivo en la utilización de mano de obra y en profunda crisis como consecuencia de la elevación del tipo de IVA; para los servicios veterinarios cuando tengan por objeto la prevención, diagnóstico o tratamiento de las enfermedades o dolencias de los animales; y para las actividades culturales, como cine, teatro y música.

**IMPORTANTE:** En el siguiente enlace se puede acceder al documento registrado por el Grupo Vasco en el que se pueden consultar las enmiendas presentadas al Proyecto de Ley de Presupuestos Generales del Estado para 2016: [http://senado.eaj-pnv.eus/adjuntos/pnvDocumentos/17914\\_archivo.pdf](http://senado.eaj-pnv.eus/adjuntos/pnvDocumentos/17914_archivo.pdf)



## **Euzko Abertzaleak Taldeak hamabi emendakin aurkeztu dizkio Estatuko Aurrekontu Orokorren proiektuari**

Joan den ostiralean 2016rako Aurrekontu Orokorrei aurkeztutako betoaren ostean -bai Euskadi bazterten dutelako eta bai datozen hauteskundearen ostean eratuko den Gobernuarentzat beste Exekutibo batek onartutako aurrekontuak gestionatzea zama handia izango zelako-, Senatuko Euzko Abertzaleak Taldeak hamabi emendakin aurkeztuko dizkio testuari.

Hasteko, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuko proiekturako Estatuko Gobernuak aurreikusitako 1,5 milioi euroak gutxi direla iritzi dio EAJk, eta zuzkidura beste hiru milioi eurotan gehitzea eskatu du, finantzazioa guztira 4,5 milioikoa izan dadin. Jeltzaleen esanetan, Espainiako Gobernuak Europako beste Estatu Gobernu batzuek egitasmo berdinerako aurreikusi izan dutena baino nabarmen gutxiago da, eta ez dator bat Donostia/San Sebastián 2016 Fundazioko beste erakundeek egin dituzten ekarpenekin.

Euskal Y delakoari dagokionez, Euzko Abertzaleak Taldearen arabera, aurreikusitako zuzkidura ez da nahikoa Sustapen Ministroak 2019rako lana amaituta egongo zela publikoki jakinarazi zuen konpromisoa bete ahal izateko. Hori dela eta, 140 milioi euro gehiago zuzentzea eskatu du, guztira 431 milioi euroko inbertsioa egin dadin. Igoera hori geltokietara sarbideak egitera eta Bergarako Korapiloa amaitzera zuzendu dezala exijitu du EAJk.

Beste alde batetik, Euzko Abertzaleak Taldeak Ertzaintzako funtzionario izateko lan eskaintza Segurtasun Batzordeak adostutako 8.000 agenteetaraino hel dadin bermatzeko bestekoa izatea eskatu du. Kontuan hartu behar da 3.000 ertzainek baino gehiagok utziko dituztela euren lanpostuak datozen hamar urteotan, lehen deialdietako agenteak euren erretiro adinera heltzen joango direlako. Bestalde, emendakin bat aurkeztu da lan publikorako kontratazio prozesuak malguagoak izan daitezzen, eta beste bat funtzionarioen maila desberdinei tratamendu berdina eman diezaien. Horrez gain, Diru laguntzen Lege Orokorra, Kontzertu ekonomikoaren Legea eta Foru Erregimenaren babesa, eta 2010ean EAERI transferitutako lan politika aktiboen konpetentzia errespetatu dezala exijitzen du.

Horiez gain, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari bi azpiegitura egitea eskatzen zaio: Laudion Basaurbeko Hondakin Uren Araztegia eraikitzea, eta Kadagua erreka bideratzea Gueñesgo udaletxetik eta Arangureneko paper lantegiaren arteko zatian. Lehen proiektuak 18 milioi euroko aurrekontua du eta bigarrenak, 10 milioikoa.

Azkenik, beste emendakin batek egoera batzuetan BEZ gutxitua berriz ere aplikatu dadin eskatzen du: ile apaindegi zerbitzuetarako, eta eskulana modu intentsiboan erabiltzen diren sektoreetarako, BEZ igo zenetik krisi larrian daudenak; albaitari zerbitzuetarako, animalien gaixotasunak aurreikusi, diagnostikoa egin edota artatu behar direnetan; eta kultur ekintzatarako, zinea, antzerkia edota musikarekin, esate baterako.

**GARRANTZITSUA:** Lotura honekin Euzko Abertzaleak Taldeak erregistroan aurkeztutako agirira sar zaitetzke, bertan 2016ko Estatuko Aurrekontu Orokorretako Lege Proiektuari aurkeztutako emendakin guztiak ikusi ahal izateko: [http://senado.eaj-pnv.eus/adjuntos/pnvDocumentos/17914\\_archivo.pdf](http://senado.eaj-pnv.eus/adjuntos/pnvDocumentos/17914_archivo.pdf)